



BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ARTEKO LANKIDETZARAKO ESPARRU-HITZARMENA, BAT, B ACCELERATOR TOWER ESPARRUAN JARDUERAK BATERA GARATZEKO.

CONVENIO MARCO DE COLABORACIÓN ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI PARA EL DESARROLLO CONJUNTO DE ACTUACIONES EN EL MARCO DE BAT, B ACCELERATOR TOWER.

BILDU DIRENAK

SE REUNEN

Alde batetik Unai Rementeria Maiz Bizkaiko Ahdun Nagusia, Bizkaiko Foru Aldundiaren izenenan jarduten duena, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 1987/3 Foru Arauak emandako ahalmenak direla bide.

De una parte, Unai Rementeria Maiz, Diputado General de Bizkaia, en nombre y representación de la Diputación Foral de Bizkaia, en virtud del artículo 23 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre la Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia.

Bestetik, Miren Aranzazu Tapia Otaegi, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko Sailburua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren izenean eta ordezkaritzan, Gobernu Kontseiluaren 2022ko urriaren 18ko Erabakiak emandako baimenaren indarrez.

De otra parte, Maria Aranzazu Tapia Otaegi, Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, en nombre y representación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en virtud de la autorización otorgada por el Acuerdo de Consejo de Gobierno de 18 de octubre de 2022

Parte-hartzaileek gaitasun juridikoa aitortzen diote elkarri hitzarmen hau egiteko, eta bakoitzak dituen eskumenei jarraikiz, denon adostasunarekin eta hartarako,

Las Partes se reconocen capacidad jurídica necesaria para otorgar el presente convenio, y actuando en virtud de las competencias que cada una ostenta, de común acuerdo,



ADIERAZTEN DUTE

I-Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak, ekintzaitza sustatzeko eskumena duten sailen bitartez, lankidetzan dihardute Ekintzaitzako Erakunde arteko Planaren esparruan, hainbat laguntza-programa koordinatuz, inkubazio- eta azelerazio-espazioak kudeatuz edo Bizkaiko eta Euskadiko ekintzaitza- eta berrikuntza-ekosistema indartzeko jarduera zehatzak elkarrekin garatuz.

Bi erakundeek ustez, jarduera ekonomikoa eta enplegua sortzeko eta berrikuntza- eta eraldaketa-prozesuak bizkortzeko, beharrezkoa da enpresa-proiektu gehiago eta hobekia izatea, bereziki trantsizio teknologiko-digitalarekin, energetiko-ingurumenekoarekin, sozioantiariorarekin eta demografikorekin lotutako arloetan.

Izan ere, ekosistema ekintzaile eta berritzaile bien sinergiak eta osagarritasunak ahalbidetzen du startup eta enpresa bultzatzaile berriak garatzea eta indartzea esparru eta sektore berritzaileetan eta azkartzeko gaitasun handia dutenetan.

II.-Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak hitzarmen bat sinatu zuten 2018ko abenduaren 21ean, Bilbon ekintzaitza-zentro bat ezartzeko beharrezkoak ziren jarduketa guztiak egiteko, ekintzaitza-ekosistema oso bat sortzeko eta nazioarteko harremanak ezartzeko beharrezkoak diren eragile guztiak biltzeko: horrela, startupak kanpora ateratzea ahalbidetu eta erraztu

EXPONEN

I- La Diputación Foral de Bizkaia y el Gobierno Vasco, a través de los departamentos que tienen atribuida la competencia de impulso al emprendimiento, vienen colaborando en el marco del Plan Interinstitucional de Emprendimiento, coordinando diferentes programas de ayudas, co-gestionando espacios de incubación y aceleración o desarrollando conjuntamente actividades concretas para el fortalecimiento del ecosistema de emprendimiento e innovación de Bizkaia y Euskadi.

Ambas entidades consideran que para generar actividad económica y empleo y acelerar los procesos de innovación y transformación es necesario contar con más y mejores proyectos empresariales, especialmente en las áreas relacionadas con la transición tecnológico-digital, energético-medioambiental, socio-sanitaria y demográfica.

De hecho, es la sinergia y complementariedad de ambos ecosistemas emprendedor e innovador lo que permite avanzar en el desarrollo y fortalecimiento de nuevas startups y empresas tractoras en ámbitos y sectores innovadores y con gran capacidad de aceleración.

II.-La Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Bilbao firmaron un convenio el 21 de diciembre de 2018 para la realización de cuantas actuaciones fuesen necesarias para el establecimiento en Bilbao de un centro de emprendimiento capaz de aglutinar a todos los agentes necesarios para crear un completo ecosistema de emprendimiento y de establecer conexiones internacionales,



zuten, talentu ekintzailea erakartzea eta enpresa-proiektu berritzaileen garapena bizkortzea.

Abian jartzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak hitzarmen bat sinatu zuen Beaz, S.A.U. foru-sozietate publikoarekin, orduko Nazioarteko Ekintzailetza Zentroaren- gaur egun, BAT, B Accelerator Tower, zerbitzuak emateko kontratuaren lizitazioa kudeatzeko. PriceWaterHouseCoopers, Asesores de Negocios, S.L. entitateari eman zioten esleipena.

III.- Bai Bilboko Udalak bai Bizkaiko Foru Aldundiak badakite horrelako proiektu batek ekintzailetzaren arloan lan egiten duten gertuko eragileekin aliantzak behar dituela, munduari irekia delako eta ekintzailetza-ekosistemaren dinamizatzaile delako. Gogoeta horretatik abiatuta, eta Ekintzailetzako Erakunde arteko 2024 Planaren markoan, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzaren prozesu bat hasteko beharra planteatzen da, BAT, B Accelerator Tower esparruan jarduerak elkarrekin egiteko.

IV.- Eusko Jaurlaritzak honako eginkizun hauek ditu, besteak beste: kultura eta balio ekintzaileak sustatzea; ekintzailetza-ekintzarako eta ekintzaileak gaitzeko prestakuntza hobetzeko neurriak garatzea; enpresa-proiektuetara, bereziki etorkizuneko potentzial handienekoetara, merkatuan sartzeko aukerak sortzea sustatzea; beste erakunde eta eragile batzuekin lankidetzan, ekimen ekintzaile berriei laguntzeko zentroen sarea garatzea; enpresa-ingurunean kultura

posibilitando y facilitando la salida al exterior de las startups, la atracción de talento emprendedor y acelerar el desarrollo de proyectos empresariales innovadores.

Para su puesta en marcha, la Diputación Foral de Bizkaia suscribió con la sociedad pública foral Beaz, S.A.U. un convenio para gestionar la licitación del contrato de concesión de servicios del entonces denominado Centro Internacional de Emprendimiento, actualmente BAT, B Accelerator Tower, resultando adjudicataria la entidad PriceWaterHouseCoopers, Asesores de Negocios, S.L.

III.- Tanto el Ayuntamiento de Bilbao como la Diputación Foral de Bizkaia son conscientes de que un proyecto de estas características, abierto al mundo y dinamizador del ecosistema de emprendimiento, precisa de alianzas con agentes próximos que trabajan también en el ámbito del emprendimiento. Desde esta reflexión, y bajo el marco de colaboración interinstitucional del PIE 2024, se plantea la necesidad de iniciar un proceso de colaboración con el Gobierno Vasco para el desarrollo conjunto de actuaciones en el marco de la BAT, B Accelerator Tower.

IV.- El Gobierno Vasco tiene entre sus funciones el fomento de la cultura y valores emprendedores, el desarrollo de medidas tendentes a mejorar la formación para la acción emprendedora y la capacitación de personas emprendedoras, la promoción de la generación de oportunidades de acceso al mercado a los proyectos empresariales especialmente a los de mayor potencial de futuro, el desarrollo en colaboración con otras instituciones y agentes implicados de una red



ekintzailea sustatzeko ekimenak eta laguntza-programak bultzatzea, eta barneko eta kanpoko ekintzailtza-sistemaren irudia eta kokapena indartzeko jarduerak garatzea. Halaber, Euskadiko enpresei laguntzea trantsizio teknologiko-digitalean, soziosanitarioan eta energetiko-ingurumenekoan aurrera egitea ahalbidetuko dieten proiektuak azkartzeko.

de centros de apoyo a las nuevas iniciativas emprendedoras, el impulso de iniciativas y programas de apoyo para la promoción de la cultura emprendedora en el entorno empresarial y el desarrollo de actuaciones para el refuerzo de la imagen y el posicionamiento del sistema de emprendimiento interna y externamente, así como el apoyo a empresas de Euskadi para acelerar los proyectos que les permitan avanzar en las transiciones tecnológico-digital, socio-sanitaria y energético-medioambiental.

V.- Hitzarmen honen bidez, Eusko Jaurlaritzak BAT, B Accelerator Tower proiektuarekin elkarlanean arituko da, zeinaren parte diren dagoeneko Bizkaiko Foru Aldundia eta Bilboko Udala. Proiektuaren helburua ekosistema ekintzailea eta berritzailea nazioartekotzea da, Euskadiko emaitzetan eragin handiagoa izateko.

V.- A través de este convenio el Gobierno Vasco colaborará con el proyecto BAT, B Accelerator Tower del que ya son parte la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Bilbao puesto que se trata de un proyecto cuyo objeto es la internacionalización del ecosistema emprendedor e innovador para un mayor impacto en los resultados de Euskadi.

VI.- BAT, B Accelerator Tower esparruko lankidetzak bi erakundeek ekintzailtza sustatzeko politikak garatzeko hasitako lan-ildoak indartzea. Dorreak espazio berean biltzen ditu berrikuntza irekiko prozesuetan inplikaturako eragile tipo guztiak; horretarako, ibilbide-orri zehatz bat erabiltzen du. Nazioartekotzeko proiektu bat da eta bere helburua da enpresak eta inbertsioak erakartzea eta Euskadiko enpresa-sarea eraldatzen duen tokiko berrikuntza- eta ekintzailtza-ekosistema indartzea.

VI.- La colaboración en el marco de la BAT, B Accelerator Tower viene a reforzar líneas de trabajo ya iniciadas por ambas instituciones en el desarrollo de políticas de impulso al emprendimiento. La Torre aún en un mismo espacio a todos los tipos de agente implicados en procesos de innovación abierta con una hoja de ruta definida. Es un proyecto de posicionamiento internacional para la atracción de talento emprendedor, empresas e inversiones y de fortalecimiento del ecosistema de innovación y emprendimiento local que contribuye a la transformación del tejido empresarial vasco.



Hala, azaldutakoarekin bat etorri, alderdiek hitzarmen hau sinatzea erabaki dute, klausula hauek izango dituen

Así, de conformidad con lo anteriormente expuesto, las Partes acuerdan suscribir el presente convenio que se regirá por las siguientes

KLAUSULAK

Lehengoa.- Hitzarmenaren xedea

Hitzarmen honen xedea da lankidetzaren esparru orokor bat ezartzea Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean, BAT, B Accelerator Tower esparruan (Bilbon, Bizkaia Dorrean, Lopez Haroko On Diego Kale Nagusia 1-ean kokatua), jarduerak batera garatzeko, Bizkaia eta Euskadi nazioarteko erreferentziako ekintzailtza-nodo gisa indartzeko, enpresen sorkuntza-tasa eta haien tamaina nabarmen handitzeko eta berrikuntzan eta tokiko eta nazioarteko enpresa eta korporazioen barne-kokapenean laguntzeko, berrikuntza-dinamiken bidez.

Esparru-hitzarmen honek alderdien arteko lankidetzaren hasierako esparrua eta esparru globala ezartzen ditu, eta proiektuaren esparruan trukatzeko den informazioa babesteko modua ematen du.

Bigarrena.- BAT, B Accelerator Tower

BAT, B Accelerator Tower-en helburua da ekintzailtza-sare teknologikoki aurreratua gune bakar batean kokatzea, eta elkarrengana iristeko guneak bilatuz startupak (negozioan) eta korporazioak (berrikuntza-mailan)

CLÁUSULAS

Primera.- Objeto del convenio

El objeto del presente convenio es establecer un marco general de colaboración entre la Diputación Foral de Bizkaia y el Gobierno Vasco para el desarrollo conjunto de actuaciones en el marco de la BAT, B Accelerator Tower (ubicada en Bilbao, Torre Bizkaia, Gran Vía de Don Diego López de Haro 1) para fortalecer el posicionamiento de Bizkaia y Euskadi como nodo de emprendimiento de referencia internacional, con el fin de incrementar de manera significativa la tasa de creación de empresas y su tamaño y contribuir a la innovación y al intraemprendimiento de empresas y corporaciones locales e internacionales a través de dinámicas de innovación abierta.

El presente convenio establece el marco inicial y global de colaboración entre las Partes y permite proteger la información que se intercambien en el marco del proyecto.

Segunda.- BAT, B Accelerator Tower

BAT, B Accelerator Tower tiene por objeto ubicar en un único espacio tejido emprendedor de carácter tecnológicamente avanzado, buscando puntos de confluencia que lleven al crecimiento mutuo de startups



hazteko, bertan kokatutako enpresei emakidadunak mundu mailan dituen gainerako kokalekuetara sartzeko aukera eskainiz.

BAT, B Accelerator Tower delakoan zerbitzuak ematen dira eta ekintzak antolatzen dira bertan kokatutako enpresentzat interesgarriak diren enpresa-proiektuak eta startupak erakartzeko, eta aldiari behin Euskadiko ekosistema ekintzailea dinamizatzen duten jarduerak eta ekitaldiak antolatzen dira, komunitatea sortzeko eta inplikaturako eragile bakoitzaren helburuak bizkortzeko. Euskaditik kanpo antolatzen dira jarduerak eta ekitaldiak, BAT, B Accelerator Towerren dauden enpresei dorreari berari eta Euskadiri ikusgarritasun globala emateko.

BAT, B Accelerator Towerrek honakoa eskaintzen du:

- ad hoc zerbitzuen gutuna korporazioentzat eta ETEentzat, berrikuntza- eta dibertsifikazio-prozesuak bizkortzeko
- startupetarako ad hoc zerbitzuen gutuna, proiektuak bizkortzeko
- ekosistemaren beste eragile batzuentzako ad hoc zerbitzuen gutuna

Honako helburu estrategiko hauek ditu:

- 1 Lurraldea nazioartean kokatzea, enpresa- eta ekintzaile-aukerako lurralde gisa, batez

(en negocio) y de corporates (en su nivel innovación) ofreciendo a las empresas allí ubicadas la posibilidad de conexión con el resto de localizaciones que el concesionario dispone a nivel mundial.

En BAT, B Accelerator Tower se prestan servicios y se realizan acciones para atraer proyectos empresariales y startups de interés para las empresas ubicadas en él y se organizan de forma periódica actividades y eventos que dinamizan el ecosistema emprendedor vasco con el objetivo de generar comunidad y acelerar los objetivos de cada uno de los agentes implicados. Se organizan actividades y eventos fuera de Euskadi para dar visibilidad global a las empresas ubicadas en BAT, B Accelerator Tower, a la propia torre y al país.

BAT, B Accelerator Tower ofrece:

- carta de servicios ad hoc para corporates y pymes con el fin de acelerar procesos de innovación y diversificación
- carta de servicios ad hoc para startups para aceleración de proyectos
- carta de servicios ad hoc para otros agentes del ecosistema

Sus objetivos estratégicos son:

1. Posicionar el territorio internacionalmente como un territorio de



ere mugikortasunaren, energia, foodtech, fintech eta digitech arloetan.

2. BAT-en egonaldia amaitutakoan erreferentziako startupak erakartzeko gunea izatea, euskal enpresa-sarea modernizatzen laguntzeko scaleup fasean. Horretarako, BAT, B Accelerator Towerren elementu bereizgarria erreferentziako nazioarteko ekintzaitza-nodo anitzekiko konektagarritasunean oinarrituko da, bere aliantza-sareari esker.

3. Enpresa- eta ekintzaile-sare teknologiko aurreratua gune bakar batean biltzea, startupak (negozioan) eta korporazioak (berrikuntza-mailan) elkarrekin hazteko elkarguneak ezarrita.

4. Parte hartzen duten korporazioen berrikuntza-arloak lotzea. Horrek enpresa bakoitza aberasten eta baterako negozio-aukera berriak agertzen lagunduko du, barne-ekintzaitzako ekimenak garatuz.

oportunidad empresarial y emprendedor, especialmente en las áreas de movilidad, energía, foodtech, fintech y digitech.

2. Ser un polo de atracción de startups de referencia, que una vez finalizada su estancia temporal en BAT se consoliden definitivamente, contribuyendo así a la modernización del tejido empresarial vasco en la fase scaleup de las mismas. Para ello el elemento diferencial de BAT, B Accelerator Tower se centrará en su conectividad con múltiples nodos internacionales de emprendimiento de referencia gracias a su red de alianzas.

3. Concentrar en un único espacio tejido empresarial y emprendedor tecnológicamente avanzado buscando puntos de confluencia que lleven al crecimiento mutuo de startups (en negocio) y de corporates (en su nivel innovación).

4. Conectar las áreas de innovación de las empresas corporate participantes, lo cual contribuirá al enriquecimiento individual de cada empresa y a la aparición de nuevas oportunidades de negocio conjuntas, desarrollando iniciativas de intraemprendimiento.

Hirugarrena.- Alderdien konpromisoak

Eusko Jaurlaritzak honako konpromiso hauek hartu ditu:

- BAT, B Accelerator Tower-ekin elkarlanean jardun Euskadin ekintzaitza teknologiko aurreratua sustatzeko beste elementu bat den heinean, Euskal Autonomia Erkidego osoko enpresen eta startupen beharrak eta interesak bultzatzeko eta ekintzaitza eta

Tercera.- Compromisos de las partes

El Gobierno Vasco se compromete a:

- colaborar con BAT, B Accelerator Tower como un elemento más de impulso al emprendimiento tecnológicamente avanzado en Euskadi, para traccionar necesidades e intereses de empresas y startups del conjunto de la Comunidad



berrikuntza bultzatzeko ekimen ezberdinen eta BAT-en arteko koordinazioa bilatzeko, jarduera guztien inpaktua maximizatzeko helburuarekin, azken emaitzak hobek izan daitezzen.

Autónoma de Euskadi y para buscar la coordinación entre las distintas actuaciones de impulso al emprendimiento, la innovación y las actuaciones de BAT con el fin de maximizar el impacto de todas las actuaciones en pro de unos mejores resultados finalistas.

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiak konpromiso hauek hartu ditu:

Por su parte, la Diputación Foral de Bizkaia se compromete a:

-ekintzailtza aurreratuaren azelerazioaren esparruan Eusko Jaurlaritzak zuzentzen dituen ekimen batzuei dagozkien ekintzen presentzia erraztea BAT-en (adibidez, Bind 4.0 edo EIT Food ekimena) eta ekimen desberdinak indartzen laguntzea BAT, B Accelerator Towerrek nazioarteko 140 nodo baino gehiagorekin eskaintzen duen zuzeneko konexioari eta zentroaren zerbitzu eta jarduera ugariei esker. BAT, B Accelerator Towerrek erronkak planteatzen dituzten ekimen eta enpresetan parte hartzea eskatuko duten startup gehiago erakartzen lagunduko du balio-proposamenak indartzeko eskaintza osagarriari esker, BAT, B Accelerator Tower delakoan dauden korporazioekiko interakzioari esker, hainbat ekimenekin erakarritako enpresentzako soft landingeko eskaintzari esker eta startupak lurraldera erakartzeko eta enpresa-ikusgarritasun handiagoa izateko estrategia sustatuz.

- facilitar la presencia en BAT de algunas de las actuaciones desarrolladas dentro de las iniciativas que lidera el Gobierno Vasco en el ámbito de aceleración del emprendimiento avanzado (por ejemplo el Bind 4.0 o la iniciativa EIT Food) y contribuir a fortalecer las distintas iniciativas gracias a la conexión directa con más de 140 nodos internacionales que ofrece BAT, B Accelerator Tower y su amplia gama de servicios y actividades. BAT, B Accelerator Tower contribuirá a una mayor captación de startups aplicantes en las distintas iniciativas y empresas que plantean retos gracias a su oferta complementaria para reforzar las propuestas de valor, la interacción con corporates presentes en BAT, B Accelerator Tower, la oferta de soft landing para empresas atraídas con distintas iniciativas y potenciando la estrategia de atracción de startups al territorio y con una mayor visibilidad empresarial.

- BAT-en ekintzailtza, berrikuntza eta jasagarritasuna bultzatzeko ekimen berriak egitea ahalbidetzea, esparru-hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean sor daitezkeen enpresa eta starupei dagokienez.

- posibilitar la presencia en BAT de nuevas iniciativas de impulso del emprendimiento, la innovación y la sostenibilidad de las empresas y startups que pudieran surgir durante la vigencia del presente convenio marco.



Laugarrena.- Alderdien konpromiso ekonomikoak

Esparru-hitzarmen honek ez du eduki ekonomikorik. Alderdi bakoitzak bere gain hartuko ditu lankidetzak hau gauzatzeko kostuak

Esparru-hitzarmen honetatik eduki ekonomikoa izan dezaketen proiektu zehatzak sortuko balira, horretarako akordioak formalizatu beharko lirateke.

Bosgarrena.- Jarraipen Batzordea

Hitzarmenaren Jarraipen Batzordea sortu da, eta sei-hilabeteko bilduko da. Batzorde hori lau pertsonen osatuko dute: bi Eusko Jaurlaritzaren ordezkari gisa eta bi Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkari gisa.

Seigarrena.- Datuak babestea

Datu pertsonalen babesaren arloan hitzarmen honi aplikatu behar zaizkion arauak hauek dira: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (EB), Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko dena.

Esparru-hitzarmen honetan parte hartzen duten alderdien ordezkarien eta harremanetarako pertsonen datu

Cuarta.- Compromisos económicos de las partes

Este convenio marco no tiene contenido económico. Cada una de las partes se hará cargo de los costes en los que incurra para llevar a cabo la presente colaboración.

Si del presente convenio marco surgiesen proyectos concretos que pudieran tener contenido económico, sería necesario formalizar los correspondientes acuerdos para ello.

Quinta.- Comité de Seguimiento

Se crea un Comité de Seguimiento del convenio que se reunirá semestralmente. Este Comité estará formado por cuatro personas, dos en representación del Gobierno Vasco y dos en representación de la Diputación Foral de Bizkaia.

Sexta.- Protección de datos.

La normativa aplicable al presente convenio en materia de protección de datos es el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales, y la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales.

Los datos personales de los representantes de las partes y de las personas de contacto que intervengan en este convenio marco serán



pertsonalak, hurrenez hurren, Alderdiek tratatuko dituzte, eta modu independentean jardungo dute haien tratamenduaren arduradun gisa esparru-hitzarmen honetan jasotako eskubideak eta betebeharrak betetzeko, eta hori izango da tratamendu hori legitimatzen duen oinarri juridikoa.

Datu horiek esparru-hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean mantenduko dira, eta, amaitu ondoren, behar bezala blokeatuko dira, legez ezar daitezkeen ekintzak preskribatu arte.

Alderdiek, Beazek, Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailari atxikitako sozietate publikoa, BAT, B Accelerator Towerren zuzendaritza- eta kudeaketa-zerbitzua emateko kontratuaren erakunde esleitzaila den aldetik, eta legez edo kontratuz jakinarazi behar zaizkien hirugarrenek baino ez dituzte tratatuko datuak, eta haien titularrek, indarrean dagoen legeriak ezarritako moduan, datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzte. Horrez gain, datu pertsonalen tratamendua mugatzeko eskatu ahal izango dute, haren aurka egiteko, edo datuen eramangarritasuna eskatzeko, jakinarazpen idatzia helbide hauetara helarazita:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren kasuan, datuak babesteko ordezkariarengana jo behar helbide honetara:

Donostia-San Sebastián 1, 01010, Vitoria-Gasteiz, Araba

Telefono zenbakia: 945 018 680

www.euskadi.eus/datu-babesa

tratados, respectivamente, por las partes, que actuarán, de forma independiente, como responsables de su tratamiento para dar cumplimiento a los derechos y obligaciones contenidas en este convenio marco, siendo esta la base jurídica legitimadora de dicho tratamiento.

Dichos datos se mantendrán mientras esté en vigor el presente convenio marco, y, una vez finalizado, serán debidamente bloqueados hasta la prescripción de las posibles acciones legales aparejadas.

Los datos serán tratados únicamente por las partes, por Beaz, S.A.U., sociedad pública adscrita al Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia en su calidad de entidad adjudicadora del contrato de concesión del servicio de dirección y gestión de BAT, B Accelerator Tower, y por aquellas otras terceras personas a las que están legal o contractualmente obligadas a comunicarlos, y sus titulares podrán ejercer, en los términos establecidos por la legislación vigente, los derechos de acceso, rectificación y supresión de datos y solicitar que se limite el tratamiento de sus datos personales, oponerse al mismo, o solicitar la portabilidad de sus datos dirigiendo una comunicación por escrito a cada una de las partes, a través de las siguientes direcciones:

- en el caso de la Administración General de la Comunidad del País Vasco, dirigiéndose a la persona Delegada de Protección de datos en la dirección:

Donostia-San Sebastián 1, 01010, Vitoria-Gasteiz, Álava

Teléfono: 945 018 680

www.euskadi.eus/proteccion-datos



- Bizkaiko Foru Aldundiaren kasuan, LOPD.sustapena@bizkaia.eus helbidean

- en el caso de la Diputación Foral de Bizkaia, dirigiéndose a la dirección LOPD.sustapena@bizkaia.eus

Eskubideak betetzen ez badituzte, erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute Datuak Babesteko Espainiako Agentzian edo beste agintaritzaren eskudun batean.

En caso de no obtener satisfacción de sus derechos, podrán presentar una reclamación ante la Agencia Española de Protección de Datos u otra autoridad competente.

Alderdiek konpromisoa hartzen dute esparru-hitzarmen honetan adierazitako helburuarekin eskura ditzaketen datu pertsonalak tratatzeko, hala denean, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesteari eta datu zirkulazio askeari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak (hemendik aurrera, DBEO) eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak (DBLO) ezarritakoaren arabera. Hau ere hitzartzen dute: datu horiek Hitzarmen honetan ezarritakoez bestelako helburuetarako ez erabiltzea, eta datuok hirugarrenei ez jakinaraztea edo lagatzea eta, bereziki, DBEO eta hura garatzeko gainerako arauetan eta etorkizunean horiek handitu edo ordeztu ditzaketen arauetan ezarritakoa betetzea.

Las Partes se comprometen a tratar los datos personales a los que pudieran, en su caso, tener acceso, con la finalidad indicada en el presente convenio marco, de acuerdo con las previsiones tanto del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos (en adelante "RGPD") como de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales ("LOPD"), y a no utilizarlos para fines distintos de los previstos en este convenio y a no difundirlos ni cederlos a terceras personas y, en especial, a cumplir lo establecido en el RGPD y demás normativa de desarrollo, así como a las normas que en el futuro puedan ampliarlos o sustituirlos.

Alderdiek ez dute inolako erantzukizunik hartuko beren gain, datuen babesaren arloan indarrean dagoen araudia ez betetzearen ondorioz, beste aldeak izan dezakeenean.

Las Partes no asumirán responsabilidad alguna como consecuencia del incumplimiento de la normativa vigente en materia de protección de datos en que pueda incurrir la otra parte.



Zazpigarrena.- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia

Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumen Sailaren ustez, gizon eta emakumeen arteko benetako berdintasun eraginkorra ezinbestekoa da aurrerapen ekonomiko eta soziala lortzeko, eta hau jasagarria izan dadin. Eta urte asko daramate esparru honetan lanean.

Bi erakundeek adierazi dute hitzarmen honen esparruan garatzen diren jarduera guztiak Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen eta ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren aginduetara egokituko direla.

Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Foru Planak esparru estrategikoa eskaintzen du, Bizkaiko Foru Aldundiaren berdintasun-arloko politika publikoak garatzeko, 2021-2024 ekitaldietan.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planak Sailaren berdintasun-politikak garatzeko esparrua eskainiko du 2022-2024 ekitaldietan.

Séptima.- Normativa en materia de igualdad de mujeres y hombres

La Diputación Foral de Bizkaia y el Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medioambiente del Gobierno Vasco, son conscientes de que la igualdad real y efectiva de mujeres y hombres es imprescindible para avanzar en el progreso económico y social y que este sea sostenible, y en esta línea llevan muchos años trabajando.

Ambas instituciones declaran que todas las actuaciones que se desarrollen en el marco de este convenio se adecuarán a los mandatos de la Ley 4/2005 de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombre y vidas libres de violencia machista y de la Norma Foral 4/2018 de 20 de junio.

El VI Plan Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Bizkaia ofrece el marco estratégico para el desarrollo de las políticas públicas en materia de igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia durante los ejercicios 2021-2024.

El V Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres del Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente ofrecerá el marco para el desarrollo de las políticas de igualdad del Departamento durante los ejercicios 2022-2024.

Zortzigarrena.- Iraunaldia

Esparru-hitzarmen hau sinatzen den egunean jarriko da indarrean, eta urte beteko iraupena izango du, bi urtez luzatu ahal izango dena, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49. artikuluaen 1. paragrafoan ezarritakoaren arabera.

Hitzarmena amaitzeko aurreikusitako epea bukatu aurretik, alderdiek aho batez erabaki ahal izango dute hura luzatzea, gehienez beste lau urtez, edo azkentzea.

Bederatzigarrena.- Hitzarmena aldatzeko araubidea

Esparru-hitzarmena sinatu duten erakundeek hitzarmen hori aldatu ahal izango dute, betiere ados jartzen badira, eta aldaketa horrek dagozkion jardueretan izan ditzakeen ondorioak izango ditu.

Hamargarrena.- Hitzarmena azkentzea

Hitzarmen hau azkendu egingo da, betetzen denean edo suntsiarazten denean.

Hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak izango dira:

- indarraldia amaitzea, indarraldia luzatzea erabaki gabe.
- sinatzaile guztien ahobatezko akordioa

Octava- Vigencia

Este convenio marco entrará en vigor en la fecha de su firma y tendrá una duración de un año prorrogable a dos en virtud de lo establecido en el apartado 1º del artículo 49 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

En cualquier momento anterior a la finalización del plazo previsto para su finalización, las partes podrán acordar unánimemente su prórroga, por un periodo de hasta cuatro años adicionales, o su extinción.

Novena.- Régimen de modificación del convenio

Este convenio marco podrá ser modificado de mutuo acuerdo por las instituciones firmantes del mismo, produciendo la modificación los efectos que procedan en el desarrollo de las actividades correspondientes.

Décima.- Extinción del convenio

El presente convenio se extinguirá por su íntegro cumplimiento o por resolución.

Serán causas resolutorias del presente convenio:

- el transcurso del plazo de vigencia sin haberse acordado la prórroga del mismo
- el acuerdo unánime de todos los firmantes.

- alderdiek beren gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea
- deuseztasuna deklaratzeko duen erabaki judizialagatik
- esparru-hitzarmen honetan edo legeetan ezarritako beste edozein arrazoiengatik.

- el incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por las partes
- por decisión judicial declaratoria de nulidad
- por cualquier otra causa prevista en el presente convenio marco o las leyes.

Hamaikagarrena.- Hitzarmena azkentzearen ondorioak

Esparru-hitzarmen hau betetzen ez bada, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51.2.c) artikuluan adierazitakoaren arabera jardungo dute Aldundiak eta Sailak, eta egindako errekerimenduaren berri emango dio hitzarmen honen Jarraipen Batzordeari. Errekerimenduan adierazitako epea igarotakoan, ez-betetzeak bere horretan jarraitzen badu, ebaztea proposatu ahal izango da.

Halaber, esparru-hitzarmen hau suntsiarazteak berekin ekarriko du sinatu ahal izan diren ondorengo hitzarmenak suntsiaraztea, horietan ezarritako likidazio araubide zehatzari kasu egin gabe.

Hamabigarrena.- Izaera eta araubide juridikoa

Lankidetzarako esparru-hitzarmen hau administrazio-izaerako hitzarmen bat da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikuluan aurreikusia, eta, bertan

Undécima.- Efectos de la resolución del convenio

En caso de incumplimiento de este convenio marco, la Diputación y el Departamento actuará según lo indicado en el artículo 51.2.c) de la Ley 40/2015 de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, comunicando el requerimiento realizado al Comité de Seguimiento de este convenio. Si transcurrido el plazo indicado en el requerimiento, persistiera el incumplimiento, se podrá proponer su resolución.

Así mismo, la resolución del presente convenio marco conllevará que se proceda a resolver los convenios subsiguientes que hubieran podido suscribirse, sin perjuicio de atender al régimen de liquidación concreto que se haya establecido en ellos.

Duodécima.- Naturaleza y régimen jurídico

Este convenio marco de colaboración es un convenio de naturaleza administrativa, previsto en el artículo 47 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre de Régimen Jurídico del Sector Público, y se registrará, además de por lo



xedatutakoaz gain, zuzenean edo analogiaz aplika daitezkeen zuzenbide substantiboko arauak arautuko dute.

dispuesto en el mismo, por las normas de derecho sustantivo que directamente o por analogía puedan resultar de aplicación.

Esparru-hitzarmen hau Sektore Publikoko Kontratuak buruzko martxoaren 8ko 9/2017 Legearen aplikazio eremutik kanpo dago (6. artikulua), baina hura interpretatzean eta gauzatzean izan litezkeen zalantzak eta hutsuneak aipatutako legean jasotako printzipioak aplikatuz ebatziko dira, 4. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Está excluido del ámbito de aplicación de la Ley 9/2017, de 8 de marzo, de Contratos del Sector Público, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 6 de la misma, si bien las dudas y lagunas que puedan suscitarse en su interpretación y ejecución se resolverán aplicando los principios contenidos en la citada Ley, de conformidad con lo estipulado en su artículo 4.

Eta, adostasuna adierazteko, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren arteko lankidetzarako esparru-hitzarmen hau formalizatu da Bilbon, sinatzen den egunean.

Y, en prueba de conformidad, se formaliza en Bilbao, en la fecha de su firma, el presente convenio marco de colaboración entre la Diputación Foral de Bizkaia y la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Ėkonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua

Bizkaiko Ahalduen Nagusia

Consejera de Desarrollo Económico,
Sostenibilidad y Medio Ambiente

Diputado General de Bizkaia

María Aranzazu Tapia Otaegi

Unai Rementeria Maiz